

Afrika afrikarrek berek baino ezin dezakete garatu

Julius Butime Uganda etorri
zaigu Donostiara ingeniariitza
ikastera. Arthur Siro Kenyako
bere jaioterria utzi eta Eskolan
ere agertu zen. Biak bere tesia
egiten ari dira

2004 Mai 20

Arthur, nondik zatoz?

Kenyarra naiz, Nairobia. Nire
gurasoak hiri txiki batean bizi dira
Kisii deritzan eskualdean.

Zergatik aukeratu zenuen Euskal Herrian ikastea?

Euskal Herria oso leku ederra da eta baita kultura aberatseko herrialdea ere. Hona etortzeko arrazoi garrantzitsuenetako bat izan zen hau. Horrez gain, Euskal Herriak ere badauka teknologi gaietan espazializatutako unibertsitate bat, lanbideko giroetan oso famatua.

Katolikoa al da zure familia?

Ez. Aita, bi arreba txikienak, anaia eta ni katolikoak gara baina gaineratikoak ez.

Oso hedatuta dago Katolizismoa Kenyan?, eta Opus Dei?

Badago kristau konfesio batzuk baina katolizismoa da nagusi. Horrek ez du esan nahi, alabaina, katolizismoa asko praktikatzen denik. Opus Deiaz denaz bezainbat, jende anitz jarri da berarekin

kontaktuan baina ez dira denak,
noski, kide izatera iritsi. Kopururen
bat aipatzearren, 800 lagun inguru
joan ziren Kenyatik Josemaría
Deunaren kanonizaziora. Opus Deiaz
zerbait dakiten guztien aldean oso
kopuru txikia da hori.

Julius, zer egin lezake Eliza Katolikoak eta bereziki Opus Dei Ugandaren garapenaren alde?

Nire iritziz Eliza Katolikoak eta
zehazkiago Opus Deik gizakiei
formazio espiritual eta profesionala
emanez lagun diezaioke Ugandako
garapenari. Horrela, kristau
pentsamolde eta mentalitatea behin
gogoan barneratuta, bertako jendea
herrialdearen garapena bultzatuko
luke Elizaren doktrina soziala
aplikatuz.

Nolakoak izan behar lukete Europaren eta Afrikaren arteko harremanak?

Nik uste, Europak bere gain hartu behar luke Afrika garatzen laguntzeko egitekoa. Ekonomia alor bideragarri batzuetan kontzentratu beharko litzateke laguntza hori, adibidez nekazaritza alorra hobetuz eta ekoizpen prozesua modernizatuz. Europa teknologiaren aldetik oso aurreratuta dagoenez oso laguntza estimagarria eman liezaioke Afrikari alor honetan.

Nola ikusten dituzue Ugandatik irabazteko asmorik gabeko erakundeak, karitate organizazioak eta garapenerako europar eskemak?

Garapena bultzatzeko bide nagusi bezala ikusten ditu jendeak irabazteko asmorik gabeko erakundeak, karitatea eta europar garapenerako eskemak.

Garapenerako eskema horietako batzuk asmo onez beterik daude: HIESAren biktimak laguntzea edo

txirotasuna, gosea eta gaisotasunak
gutxitzea, soilik adibide batzuk
jartzearen. Baina dirua eman orde
onuragarriago litzateke
afrikarrentzat euren berezko
baliabideak ustiatzen eta erabiltzen
irakatsiko baliete, ugari dira eta
baliabide horiek. Oroz gain giza
baliabideena da ekintza eremu
nagusia, Afrika afrikarrek berek
baino ezin baitezakete garatu.

Zein inpresioa duzue Euskal Herriaz?

Zalantzarik gabe harro dago euskal
jendea –Arthurek dio- bere sustraiak
eta historia direla eta. Orden eta
organizaziorako joera ikusgarria da
hemen. Gauza guztiak (udal
zerbitzuak, trafiko kontuak) nahiko
txukun eta egoki dabilta. Eta noski,
ezin aipatzeke utzi beste alde
garrantzitsu bat, euskal
jendearentzat bereiziki kuttuna:
janaria alegia. Baina ez dut topiko

honetaz areago jardun nahi.
Garrantzi handiagoko kontuetan,
nire iritziz gurasoak su eta gar saiatu
beharko lirateke gazteek
garrantzitsuena zein den jakin
dezaten, Jainkoa, alegia. Kenyan
hemen baino askoz gehiago aipatzen
da Jainkoa. Kenyan ez bezala hemen
meza bat ospatzen da eguneko ordu
guztietan leku hurbil batean. Gazteei
erakutsi behar zaie zer nolako
altxorra duten euren aldamenean.

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/afrika-
afrikarrek-berek-baino-ezin-dezakete-
garatu/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/afrika-afrikarrek-berek-baino-ezin-dezakete-garatu/) (2025 Abu 7)